

“KOSMODISEARI ESKER, ELKARLANA, TALDE LANA, SORMENA ETA EKIMENA BALIO POSITIBOAK LANTZEN DIRA”



Josune Murua - La Salle Berrozpe | Zikloak [1. saria]

Josune Murua Andoaingo La Salle Berrozpe ikastetxeko “Ciborgkitt” taldearen arduraduna da. Talde horrek lortu du “Zikloak” kategoriako lehen postua. Irakasleak aitortu duenez, hasieran ikasleek ezaugarri hauetako proiektu bat egiteak zertarako balio zuen mesfidati agertu ziren, baina, pixkanaka-pixkanaka *“ikusten joan dira zein zen proiektuaren helburua eta fase bakoitzean eskatzen zitzaaien lana ongi lotu dute”*.

- Zure ustez, zein izan da ekimen honen alderdi interesgarriena ikasleentzat?
- *Lana taldean partekatzea eta audioa eta bideoa lantzeko programa informatikoak erabiltzea.*

- Nola jaso dituzte ikasleek lortutako emaitzak?
- *Ilusio handiz, nolabait, ongi egindako lanaren saria baita.*

- Kosmodiseako 2011-2012 edizio honetan hainbat aldaketa txertatu dira, hala nola, Grapho Planeta fasea gehitzea edo wikiei garrantzi handiagoa ematea. Zer iruditu zaizkizue berrikuntza horiek?

- *Ikasleek ez zuten argi wikiaren bigarren fasean egin behar zena. Eta lehenengo fasean informazioa errepikatuta eskatzen zela uste dute. Datorren urtera begira, tresna hori nola landu behar den hobeto jakingo dugula pentsatzen dut.*

Gainera, gogorarazi behar da Kosmodiseako edizio honetan parte hartu duten La Salle Berrozpe ikastetxeko talde batzuek beren proiektuak ingelesez aurkeztu dituztela. Ildo horretatik, La Salle Berrozpek Kosmodisean parte hartu izanaren arduradunek adierazi dutenez, *“euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez parte hartzeko aukera ematea oso interesgarria da, ikasleak erosoago senti baitaitezke lanak egitean eta, gainera, Kosmodisea txertatzeko ikasgai edo moduluen aukera zabaltzen da: euskara, ingelesa, gaztelania, informatika, enpresa eta ekintzailletza, besteak beste”*. *“Gure kasuan”,* gehitu du, *“heziketa-zikloetako taldeek euskaraz eta gaztelaniaz, baita bi hizkuntzetan ere, parte hartzea erabaki dute”*. *Batxilergoan, “mundu garaikidearen zientziak” ikasgaiaren barnean parte hartu dugu eta, ingelesez irakasten denez, ikasleek hizkuntza hori erabili dute proiektuetan”*.

- Zeintzuk dira, zure ustez, eredu hirueledun horrek sorrarazten dituen alderdi positiboak?
- *Gure ustez, abantaila nagusia da Kosmodisean parte hartzeko hizkuntza aukeratu ahal izateak ikasleei komunikazio-gaitasuna naturaltasunez garatzeko aukera eman diela eta Euskadin proposatuta dagoen moduan, hori hiru hizkuntzatan egin daiteke.*

- Eta zein da desabantaila nagusia?
- *Desabantaila nagusia ebaluatzeko garaian datorrela uste dugu, lan horiek ebaluatuko dituzten ikasleek mezua ulertzeko ahalegin handiagoa egin behar baitute eta horrek, gure iritziz, kaltegarria da Kosmodisean ingelesa erabiltzen duten taldeentzat.*

- Zure ustez, zein balio onuragarri lor daitezke Kosmodisean parte hartzean?
- *Proiektu honi esker, elkarlana, talde-lana, sormena eta ekimena balio positiboak lantzen dira.*

- Zein alderdi da, zure ustez, Kosmodisea 2011-2012ko onena? Eta zein alderdi dira hobetu edota aldatu beharrekoak?

- *Kosmodiseako alderdi onena, urtero bezala, taldean lan egiten ikasteko eskaintzen duen aukera da, kide bakoitzak ematen dituen ideiak errespetatu behar baitira. Horrez gain, taldeko kide bakoitzak fase bakoitzean egin behar den lanaren arduradun egiten laguntzen du.*

Nire ustez, oraindik batzuetan Kosmodiseako plataforma informatikoak huts egiten du. Askotan, egindako lana, wikian adibidez, ez zen plataforman gordetzen. Horrek haserrea eragiten zien ikasleei, arazo horren ondorioz eskola-ordu asko galtzen baitziren.

- Parte hartuko al duzue Kosmodiseako datorren edizioan?

- *Baietz uste dut, gure ikastetxeak kultura ekintzailearen programaren alde duen apustua oso indartsua baita eta, gure ikasleekin batera, proiektu mota horren alde egiten jarraituko dugu.*

- Ideiak, iritziak, iradokizunak, iruzkinak, kritikak...

- *Iradokizun gisa, plataforma informatikoak ongi funtzionatzen duela egiaztatzea eta behar bezala funtzionatzen duela egiaztatu baino lehen ez argitaratzea proposatuko nuke.*